

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Behin betiko onespena ematea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza aldatzearen espedientea jendaurrean egon den bitartean alegazio edo oharrik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsi eta osorik argitaratzen da aipatutako ordenantzaren aldaketaren testua:

4.1.i. artikulua:

“Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga kuotaren ehuneko 100eko hobaria izango dute ibilgailu historikoek eta ekoitzi zirenetik hogeita bost urte baino gehiago dutenek. Data hori jakiterik ez badago, lehen aldiz matrikulatu zen eguna hartuko da kontuan edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera hori egiteari utzi zitzaion eguna. Hobari hori eskatu egin beharko da, eta onuradun izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

1. Ibilgailu horien titular nagusiak hobariaren onuradun izan behar du.
2. Onuradunak ibilgailu klasiko, zahar edo historikoak sustatu eta zaintzen dituen klub edo elkarte batekoa dela egiaztatu beharko du.”

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da, eta jakinarazten honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango dela zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Burgelu, 2018ko azaroaren 23a

Alkatea

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA